



Izangaien betebeharrak.

Hautapen prozedura hauetan parte hartzen duten izangaiek betebeharrak bete beharko dituzte onartuak izateko:

Betebeharrak orokorrak.

a) Espainiarra izatea edo Europar Batasuneko gainerako estatuetakoa, edo arau hauek aplikatzen zaizkion estaturen batekoa: langileen joan-etorri askeari buruz Europako Parlamentuak emandako 2004/38/EE Zuzentaraua eta otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua, hots, Europar Batasuneko herritarrak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioari lotutako beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartu eta bizitzeari eta horien joan-etorri askeari buruzkoa. Horien ezkontideek ere parte har dezakete, zuzenbidez bananduta ez badaude, bai eta bere ondorengoek eta ezkontidearenek ere, zuzenbidez bananduta ez badaude eta, ondorengoei dagokienez, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo, zaharragoak izanez gero, haien bizkar bizi badira edo ezgaiak badira. Halaber, herritar horien aurreko ahaide zuzenek eta haren ezkontidearenek parte hartzen ahalko dute, zuzenbidez bananduta ez badaude eta haren kargura bizi badira.

b) Hemezortzi urte beteak izatea eta, oro har, erretiroa hartzeko ezarritako adina ez izatea.

c) Aukeratu nahi den kidegoari eta espezialitateari dagozkion eginkizunekin bateraezina den eritasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

d) Diziiplina espediente bidez Administrazio Publikoen zerbitzutik bereizia ez izana, eta eginkizun publikoak betetzeko desgaitua ez egotea.

Espainiakoa ez beste nazionalitate bat dutenek, gainera, egiaztatu beharko dute ez daudela gabetuak diziiplina-zehapen baten bidez edo zigor kondena baten bidez beren estatuko funtzio publikoan aritzeko.

e) Sartu nahi den kidego bereko karrerako funtzionarioa edo praktiketako funtzionarioa ez izatea, edo horrelako lanpostu baterako izendatzeko esperoan ez egotea.

f) Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa edukitzea, Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren 57. artikulua arabera.

Sarrera-prozedura irekian parte hartzeko berariazko betebeharrak.

Aurreko atalean ezarritako betebeharrak orokorrean, izangaiek berariazko betebeharrak hauek ere bete beharko dituzte kidego bakoitzerako:

–Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoa:

a) Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua edo dagokion gradudun titulua izatea. Era berean, II. eranskinean zehazten diren espezialitateetarako, onartzen ahalko dira, oro har eskatzen den titulazioa izan ez arren, unibertsitate-diploma bat, arkitektura tekniko edo ingeniari tekniko bat duten izangaiek.

b) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan aipatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea. Oro har, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen lanbide arautuetan aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterraren titulu ofiziala dutenek betebeharrak hori konplitzen dutela ondorioztatuko da, master-tituluan agertzen den espezialitatea edozein dela ere. Unibertsitate-masterraren titulu ofizial hori eduki beharretik salbuetsita daude honako hauek egiaztatzen dituztenak:

- 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik betebeharrak hauetako bat betetzen dutenak:
 - Espezializazio Didaktikoaren titulu profesionala, Irakaskuntzarako Gaikuntza Agiria edo Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria izatea.
 - Maisu edo maistra titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko diplomadun titulua, Lehen Hezkuntzako maisu edo maistra titulua edo Pedagogiako edo Psikopedagogiako lizentziadun titulua izatea, edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa daukan beste edozein lizentziadun titulu, edo horren baliokidetzat jotako beste titulu bat.
- Irakasle jardun izana, 2008-2009 ikasturtea bukatu baino lehen, 12 hilabetez gutxienez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan, Lanbide Heziketan edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

–Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoa:

a) Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua edo dagokion gradudun titulua izatea.

b) Arte irakaskuntzen berezko ikerketetarako prestakuntza eta tutoretza-gaitasuna egiaztatzea. Hori egiaztatzeko, baldintza hauetakoren bat bete beharko da:

- Doktore titulua izatea.
- Ikertzeko nahikotasunaren aitortzea (urtarrilaren 23ko 185/1985 Errege Dekretua), edo ikasketa aurreratuak egiaztatzen dituen ziurtagiri-diploma (apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretua).
- Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko eskatutakoa ez den beste master-titulu unibertsitario ofizial bat izatea, hezkuntza arloko ikerketan edo arte irakaskuntzen berezko ikerketan aritzeko gaitzen duena, betiere hura eskuratzeko, gutxienez, 60 kreditu eskatu badira.

c) Egonkortzeko hautapen prozesu hau salbuespenezkoa denez, arte irakaskuntzen berezko ikerketetarako prestakuntza eta tutoretza-gaitasuna egiaztatutzat joko dira baldin eta izangaia gutxienez 12 hilabetez aritu bada musikako goi mailako irakaskuntzetako irakasle lanetan irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetan.

–Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoa:

- Doktore, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua edo dagokion gradudun titulua izatea.

Era berean, III. eranskinean zehazten diren espezialitateetarako, oro har eskatzen den titulazioa ez izan arren espezialitate bakoitzerako adierazten diren titulazio baliokideak dituzten izangaiek eska dezakete parte hartzea.

–Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoa:

a) Diplomadun titulua, arkitekto teknikoarena edo ingeniari teknikoarena izatea, edo gradudun, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua. Era berean, onartzen ahalko dira, oro har eskatzen den titulaziorik ez izan arren, goi mailako teknikari tituluren bat duten izangaia, betiere lehiatzen den espezialitatearen irakaslan bera esleitua daukaten titulazioei dagokien lanbide arlo batekoa bada. Ondorio akademiko eta profesioetarako goi mailako teknikari tituluaren baliokidetzat jotzen diren tituluak irakaskuntzaren ondorioetarako ere baliokideak izanen dira.

b) Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan aipatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa edukitzea. Oro har, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako

irakasleen lanbide arautuetan aritzeko gaitzen duen unibertsitate-masterraren titulu ofiziala dutenek betebeharrak hori konplitzen dutela ondorioztatuko da, master-tituluan agertzen den espezialitatea edozein dela ere. Unibertsitate-masterraren titulu ofizial hori eduki beharretik salbuetsita daude honako hauek egiaztatzen dituztenak:

- 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik betebeharrak hauetako bat betetzen dutenak:
 - Espezializazio Didaktikoaren titulu profesionala, Irakaskuntzarako Gaikuntza Agiria edo Irakaskuntzarako Gaitasun Agiria izatea.
 - Maisu edo maistra titulua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko diplomadun titulua, Lehen Hezkuntzako maisu edo maistra titulua edo Pedagogiako edo Psikopedagogiako lizentziadun titulua izatea, edo prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa daukan beste edozein lizentziadun titulu, edo horren baliokidetzat jotako beste titulu bat.
- Irakasle jardun izana, 2008-2009 ikasturtea bukatu baino lehen, 12 hilabetez gutxienez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Batxilergoan, Lanbide Heziketan edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

c) Daukaten titulazioa dela-eta b) letran adierazitako unibertsitate-masterraren titulua lortu ezin duten pertsonak (unibertsitate-titulurik ez dutelako), irakaskuntzaren ondorioetarako baliokidetzat jotzen den titulazio bat badute, irailaren 23ko EDU/2645/2011 Aginduan (urriaren 5eko Estatuko Aldizkari Ofiziala) araututako ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatu beharko dute beren prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa.

Agindu horretan aipatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betebeharrak aitortuta izanen dute honako hau egiaztatzen dutenek: 2014ko irailaren 1a baino lehen, Lanbide Heziketan edo kirol irakaskuntzetan bi ikasturte osotan edo, kirol irakaskuntzen kasuan, bi ziklo osotan aritu izana irakasle lanetan irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetan, edo, bestela, hamabi hilabetez jarraian edo etenekin.

Atzerrian lortutako titulazioak.

Izangaiek atzerrian lortutako titulazioak aurkezten badituzte, haien homologazioaren egiaztatzea izan beharko dute, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretuan eta abenduaren 3ko 2654/2015 ECD Aginduan xedatutakoarekin bat, edo onarpenaren egiaztatzea, 2005/36/EE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera.

Desgaitasuna dutenentzako erreserba prozeduran parte hartzeko berariazko betebeharrak.

Prozedura honetan parte hartzen ahalko dute, eskatzen duten kidegoan sartzeko eskatutako betebeharrak orokorrak eta berariazkoak betetzeaz gain, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna



aitortua duten pertsonak, betiere irakasle lanerako oro har eskatzen den gaitasun funtzionala badute, eta lortu nahi den kidegorako eta espezialitaterako behar dena ere bai.

Hautapen prozesuan izangai horiek izanen dituzten baldintzak eta txanda irekiko izangaienak berberak izanen dira, deialdi honen zazpigarren oinarrian aipatzen diren egokitzapenak galarazi gabe.

Nolanahi ere, proba egin bitartean, edo praktiketan zehar zalantzak sortzen badira izangaiak kasuan kasuko kidegoko funtzionarioek egin ohi dituzten jardueretan aritzeko daukan gaitasunari buruz, epaimahaiak, hautapen batzordeak edo, hala badagokio, praktikaldiko balorazio batzordeak irizpena eskatu ahal izanen dio organo eskudunari.

Prozedura honetan parte hartzen duten izangaiek ezin izanen dute txanda irekiko prozeduran parte hartu kidego, espezialitate eta hizkuntza berean.

Euskaraz irakatsi beharreko lanpostuetan sartzeko berariazko betebeharrak.

1. eta 2. ataletan eta, hala badagokie, 3.ean ezarritako betebeharrak orokor eta berariazkoek gainera, izangaiek Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo baliokidea izan beharko dute.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaietarako berariazko betebeharrak.

Hautapen prozeduretan onartuak izateko, Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek gaztelaniaz behar bezala badakitela egiaztatu beharko dute, hurrengo baliabide hauetako baten bidez:

–DELE Diploma izatea (Gaztelaniaren Diploma Atzerriko Hizkuntza gisa), C1 mailakoa, urriaren 31ko 1137/2002 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat, edo, bestela, diploma horren baliokidea, aipatu araua aldatzen duen otsailaren 22ko 264/2008 Errege Dekretuan eta azaroaren 6ko 1004/2015 Errege Dekretuan araututakoa.

–Hizkuntza eskola ofizialek atzerritarrentzat emandako Gaztelaniaren Gaitasun Agiria izatea, C1 mailakoa.

–Filologia Hispanikoan lizentziaduna izatea, edo homologatutako titulu baliokideren bat izatea.

–Gaztelania maila neurtzeko proba bat gainditzea.

Gaztelania hizkuntza ofiziala duen herrialde bateko nazionalitatea dutenak gaztelaniaz badakitela egiaztatzen salbuetsita egon behar dira, baita Espainian unibertsitate-tituluren bat lortu dutenak ere.

Betebeharrak betetzeko eguna eta merezimenduak ixteko eguna.

Parte hartzeko betebeharrak eta alegatutako merezimenduak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete beharko dira, eta prozedura osoan mantendu beharko dira, karrerako funtzionario gisa lanpostuaz jabetu arte.

Funtzionario izendatu aurretik eskatutako betebeharren bat betetzen ez bada, izangaia kanporatu egingen da, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen arrazoituaren bidez.